

Donostiarron ikusmiran

# San Martin berria

**U**dal Gobernu Batzordeak San Martin azoka berritzeko aurreproiektua onartu zuen joan den asteartean, uztailek 4. Aurreproiektuaren arabera, oraingo merkatua lurrera bota eta berria egin beharko da. Azoka berriak bost solairu lurrazpian eta hiru lurgainean izango ditu. Lurrazpian, supermerkatua egingo da lurrazaletik gertuen dagoen solairuan, eta gainerako lau solairuak aparkalekurako erabiliko dira. Lurgainean, lehen



Argazkia: Imanol Olegi

solairuan egungo saltokiak jarriko dira, bigarrenean, merkataritza enpresa bat eta hirugarrenean, azkenik, teknologia berriekin lotutako udal zerbitzua.

Aurreproiektuen arabera, 3.000 milioi pezeta bideratu beharko dira San Martinen berrikuntzara eta lanak egungo legealdia bukatu baino lehen egin beharko dira. Azoka berria Udalak eta enpresa pribatu batek osatutako elkarteak kudeatuko du. Zehazteke dago oraindik Udalak zein enpresa izango duen elkartekide.

## Hotela eta aparkalekua, Zubietan

**Z**ubietak hotela, hainbat biltegi eta 238 kamioi eta 64 kotxeentzako aparkalekua izango ditu, Bugatiko fruta merkatuaren ondoan. Halaxe onartu zuen joan den asteartean, hilak 4, Udal Gobernu Batzordeak. Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da eta garraiolari-entzatzat esparru bat sortzea du helburu. Jorge Letamendia Hiri Planeamendu zinegotziaren esanetan, "Udalak bat egiten du Garraioarentzako Hiria sortzeko helburuarekin". Azpiegitura berria eraikitzeko lanak zortzi hilabete barru hasiko dira.

## Hobekuntzak eskatu dituzte Intxaurrondon

**Z**ibe-k, Intxaurrondo Zaharreko auzo elkarteak, eta beste zenbait erakundek auzo honetan azpiegitura gehiago jartzea eskatu dute, inguru honetan bizi kalitatea hobetzeko. Besteak beste, Madril-Irun trenbidea estaltzea, Larrotxene kultur etxea berritzea eta zabaltzea, eta auzoko elkarteentzat areto gehiago jartzea eskatu dute. Izbe eta gainerako erakundeen ustez, Intxaurrondo Zaharreko biztanleen batez besteko adina altua da, azpiegitura falta dago, eta honen ondorioz, gizarte sarea ahuldu egin da.

## Nabarmen



Pedro Miguel Etxenike

Udal Gobernuak Pedro Miguel Etxenike fisikariari Donostiako Urrezko Domina ematea onartu du. Besteak beste, garapena eta zientziaren alde egindako lana eta Donostia International Physical Center sortu izana saritu nahi ditu Udal Gobernuak. Alderdi politiko guztietako ordezkariak baiezkota eman diote Etxenike saritzeko proposamenari.

## Funtzionarioen euskalduntzea, aurrera

Udal funtzionarioen euskalduntze planaren bigarren atalak EA-EAJren babesa izango du eta, beraz, onartu egingo da. Orain arte, PSE-EEren botoak besterik ez zituen. Hala ere, zenbait proposamen onartu ondoren, plangintzak aurrera egingo du EA-EAJren botoei esker, Udalbatzarrak hilaren 17an egitekoa duen osoko bilkuran. Plan berria 2002. urtean amaituko da, funtzionarioen %45ak euskara jakitea du helburu eta hizkuntz eskakizunak aurkezteko epe malguagoak ditu, lehen atalako baino.

